

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

5731

ERABAKIA, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2022ko abenduaren 1eko bilkuran hartua, 2022rako Lan Eskaintza Publiko arrunta onartzen duena.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2022ko abenduaren 1ean egindako bilkuran

ERABAKI DU:

2022reko Lan Eskaintza Publiko arrunta onartzea; Erabaki honen eranskin modura jaso da.

6/1989 Legeak, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa aurreikusten duena betez, Lan Eskaintza Publiko arrunta dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzeko xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a.

HKEEko lehendakaria,
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,
JULIO ARTETXE BARKIN.

ERANSKINA

68/2022 EBAZPENA, 2022KO ABENDUAREN 1EKOA, HERRI KONTUEN
EUSKAL EPAITEGIAREN LEHENDAKARIARENA, 2022RAKO LAN ESKAINTZA
PUBLIKO ARRUNTA ONARTZEN DUEN EPAITEGI HONETAKO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIA ARGITARA EMATEN DUENA

16/1997 Legeak aldatutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. eta 24. artikuluetan, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 21.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2022rako lan eskaintza publiko arrunta onartzea; eskaintza erabaki honi eranskin modura atxiki zaio.

Bigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Administrazio-bidean behin betikoa den erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, eta aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osoko Bilkurari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2022ko abenduaren 29a, osteguna

ERANSKINA

ESKAINITAKO PLAZAK

Funtzionarioak.

Txanda librea.

Administraria – C1 taldea: 1 plaza.

Barne sustapena.

Administraria – C1 taldea: 1 plaza.